

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure lehiakideetat desberdintzeko, bezeroentzat balorea sortzen duten elementuak hainbat dira, hala nola, nobedadea, erabilerraztasuna, eskuragarritasuna eta pertsonalizazioa.

## NOBEDADEA

Edozein lekutan Internetera konektatuta egoteko beharra asetuko duen produktu bat ekoiztuko dugu.

## ERABILERRAZTASUNA

Ohiko routerraren funtzionamendua izango duenez erabiltzaileek ez dute arazorik izango. Gainera, routerrak botoi bakarra izango du, piztu eta itzaltzeko balio izago duena. Horretaz gain, bi LED izango ditu: bata, zenbat bateria duen jakiteko, eta bestea, konexioa ona den ala ez jakiteko.

## ESKURAGARRITASUNA

Kalean Interneterako konexioa edukitzeko gehiago ordaindu behar denez, jende askok ezin du onartu. Hortaz, gure gailuarekin telefonia mugikorreko operadore bakarrari ordaindu beharko zaio, hau da, gauza bakar bat ordaindu beharko da. Horrela mundu guztiak onartu ahal izango du kalean Wifi-a edukitzea.

## PERTSONALIZAZIOA

2 produktu eskainiko ditugu: alde batetik, router eramangarri txiki bat, eta, bestetik, router eramangarria integratuta duen mugikor zorroa.